

Oiane Valero Belasko

HISTORIA IRAKASLE ETA
IKERLARIA IPES-EN



ETXEAN IKUSITAKOA IKERKETA MOTIBAZIO

"Nire amamek etxean egin dute lan, beti. Gogoan dut, Amorotoko amama Bilbo-
ra etorri zela zaintza lanak egitera, beste batzuen seme-alabak zaintzera. Oso ohi-
koa zen batez ere herri koxkorretako an-
dreen artean; hori izaten zen askorentzat
intenbide bakarra. Hala ere, ikusi dugu nola
errepublikara garaian andreek mentalitate
irekiagoa zuten ondorengo belaunaldi-
ko andrazko horiek baino, nire amamen
belaunaldiko emakumeek baino. Frankis-
moak eragin nabarmena izan zuen".

"Oso mitifikatuta daukagun figura maskulino horrek egun ez dio erantzuten langile herriaren kontzeptuari"

Euskal langile andreak. Antzinako erregimenetik kapitalismora IPES fundazioaren bekari esker, kolektibitatean oinarritutako ikerketa-lana dela dio Oiane Valero Belaskok. Historia irakasleak (Erandion ari da aurten, DBHn) diosku zapalkuntza hirukoitzaren ikuspegia jorratzen duen lanik ez dela egon orain arte, eta ikerketa abiapuntua dela etorkizunean lan gehiago egiteko.

 MARIJO DEOGRACIAS  HODEI TORRES

Kapitalismoaren garatze prozesua non hasten da zuen lanean?

Kapitalismoaren sortze prozesua kokatu dugu 1789an, Frantziako iraultza burgesa eman zen urtean. Batez ere, Ipar Euskal Herrian era-
gin zuzena izango du eta hor hasten
dira kapitalismoak, industrializa-
zioak eta liberalismoak ekarriko di-
tuzten aldaketa guztiak.

Eta aldaketa nagusiak zeintzuk lirateke?

Soldatapeko lanaren egituratzea. Kapitalismoak ekarri du soldata-
peko lana orokortzea eta dikoto-
mia bat sortzea: andrazkoentzat,
"ez-lan" deitzen duguna, edo mai-
tasunagatik egindako lana; eta
gizonentzat, soldatapeko lana,
ofiziala. Baina andrazkoek beha-
rra izango dute etxetik kanpo lan
egiteko, gizonen soldata osatzeko,
biziraupena bermatzeko; hori, bai-
na, merkatu beltzean izango da.
Horixe litzateke tesia: kapitalis-
moak ekarri du soldatapeko lana,
baina andrazkoak hortik kanpo
kokatu ditu.

Bizirauteko esaten duzu; gaur egun ere bizirauteko ekonomia-sisteman ari gara.

Gauzak ez dira horrenbeste aldatu. Kapitalismoak egiten duena da for-
ma aldatu, egoera berrietara mol-
datu. Lehen bertako andreek egiten
zituzten hainbat jarduera, prekarioe-
nak, gaur egun egiten dituzte emaku-
me atzerritarrek, etorkinek. Eurak
dira lan-baldintzarik kaskarrenak
dituztenak, kontraturik gabeko jar-
duerak egingo dituztenak, euren fa-
miliak utzi eta besteenak zaintzera
behartuta ikusiko direnak. Formak
aldatzen dira, baina zapalkuntzak
bere horretan dirau.

Zapalkuntza hirukoitza diozu, baita kapitalismoaren aurretik ere?

Euskaldun garen heinean, gure histo-
ria zapalkuntzaren historia da. Andre
garen heinean, genero zapalkuntza
pairatu dugu historikoki; patriarka-
tua zapalkuntzarik zaharrenetarikoa
da. Ez dugu esango kapitalismoak
sortu duela patriarkatua, baina ba-
liatu du negozioa borobiltzeko. Bes-
tetik, langileriaaren kontzeptua XIX.



"GAUZAK EZ DIRA HORRENBESTE ALDATU. KAPITALISMOAK EGITEN DUENA DA FORMA ALDATU, EGOERA BERRIETARA MOLDATU. LEHEN BERTAKO ANDREEK EGITEN ZITUZTEN HAINBAT JARDUERA, PREKARIOENAK, GAUR EGUN EMAKUME ATZERRITARREK EGITEN DITUZTE, ETORKINEK".

mendearen amaieran sortzen da, langile klasearen sorrerarekin. Baina aurretik ere, matxinadetan, euskal jendartean nolabaiteko kontzientzia sortzen da, burgesiaren kontra altxatzeko.

Euskal feminismoak zer ekarri dio euskal langileen ikusgarritasunari?

70eko hamarkadan gorpuztuko da, batez ere Ipar Euskal Herrian (Hegoaldean oraindik diktaduran bizi ziren), 68ko maiatzari lotuta. Andrazkoak ohartu ziren ez zirela protagonistak iraultza hartan eta hortik hasi zen sortzen euskal feminismoa. Zapalkuntza bikoitza nahiko garbi ikusi zen orduan: langileak eta emakumeak gara; horri gehitu zaio nazio zapaldu baten parte izatea. Hirugarren zapalkuntza hori Aizan taldeak gehitu zion, 90eko hamarkadan. Hor bukatu nahi izan dugu, nolabait, bilakaera horren emaitza euskal feminismoa izan daitekeelako.

Liburuaren aurkezpenean aipatu zenuen zaintza lanak eremu pribatura eraman direla, emakumea lan merkatutik ateraraziz.

Zaintza lanak egokitu zitzaizkien emakumeei eta, gainera, merkatu ofiziale-

tik kanporatuak izan ziren, zaintza lan horiek egiteko. Baina emakumeak lan merkatu ofizialean sartzen hasi zirenean, zaintza-lan horiek berdin egin behar ziren; beraz, lanaldi bikoitza inposatu zitzaien, eta tranpak hor jarraitzen du. Ikusten dugu nork garbitzen duen mundua, besteen etxeetan dau-denak, gure nagusiak nork zaintzen dituzten, gure umeak... Lehen guk egiten genituen lan horiek guztiak, orain atzeritik datorren migratzaile batek egiten ditu eta, gainera, oso diru kopuru murriztaren truk.

Garai batean Euskal Herrira etorri ziren emakumeak ere barne hartzen dituzu euskal nortasuna aipatzen duzunean?

Nazionalismo tradizionala etnizista izan da eta etorkin horiek guztiak nazionalismotik kanpo utzi dira. 50eko hamarkadan ezker ikuspuntutik sortutako abertzaletasun berriak, nolabait, langile horiek guztiak barne hartzen zituen. Hor dugu, esaterako, Argala ideologo gisa. Sekulako saiakera egin zen hemengoak ez ziren langileak "euskal langile herria" kontzeptuan sartzeko: "Euskalduna Euskal Herrian lan egiten

duena eta bizi dena da". Egia da emakumeak ez zituela aintzat hartzen, ze langilea irudikatzen dugunean, burura datorkiguna da gizona, buzoduna eta fabrikako langilea. Hori tranpa da. Langileek aurpegi anitzak dituzte, hainbat jardueratan ari dira; are gehiago, langabetuak ere barne hartzea ezinbestekoa da. Oso mitifikatuta daukagun figura maskulino horrek gaur egun ez dio erantzuten langile herriaren kontzeptuari. Eta hortik dator, baita ere, gure liburuaren izenburua: "Euskal langile herria, euskal langile andreak".

Egindako azterketak ematen dizun perspektibatik, ondo ari ote gara?

Aurrerapausoak ikaragarriak izan dira, martxoaren 8ko mobilizazioetan, adibidez. Kontzientzia-hartze prozesuan bagoaz aurrera. Horrek ez du esan nahi berdintasun egoeran bizi garenik; bidea oraindik luzea da. Eman diren urratsak borroka baten emaitza dira, eta ondo antolatuta, estrategikoki gauzak ondo lotuz gero, aurrera jarraitzeko moduan gaude. Gaur egungo egoera ez da berdintasunean oinarrituriko egoera, baina urratsak eman dira eta gure aurrekoek egindako borrokaren ondorio dira. ●